


89. zk.
2000ko maiatza



GASTEIZKO II. ZINEMALDIA



Errealizadore berriak



Maiatzaren 10etik 14ra




qlbeniz

LIBURUAK

Benito Ginea kalea, 2. Tel-faxa: 945-257514. Gasteiz.

hilabete honetan



22... 24. orr.
Zukua
Gasteizko
II. Zinemaldia

22... 23. orr.
Kantautoreak.
Mikel Telleria.
Josu Bravo.



26... 27. orr.
Ikaskuntza.
Diocesanas-
-Molinuevo.

• atalak •

4. orr. zizka-mizkak - 8. orr.
hamaika kontu - 16 orr. nik uste!
17. orr. Kozkortuz - 32. orr. Zeuk
aukeratu! - 34. orr. Komikia

9. orr. Kanpezuko Kultur
Astea.

10. orr. Udarako aukera:
Askapena.
Komite Internazionalistak.

14. orr. Ametsak denda.
Marihuana erakuslehioan.

21. orr. Euskaltasunean lagun.
Elena Perez de Mendiola Mtz.

30. orr. Zesta punta:
Iker Foronda.

termometroa



Eta IRIDIAK...?

ARABAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA SAILAK, APIRILAREN 3ko A.L.H.A. On argitaratu bezala, euskararen sustapenerako jardueren garapenerako dirulaguntzen deialdia atera du azkenean. Orotara 10.000.000 pezeta banatuko ditu Foru Aldundiak multzo honetan sartzen diren-garen Arabako Elkarte eta Entitate guztien artean... Guretzat berri ona da, momentuz,...

*Datozen aleetan jarraituko duzue gai honen berri izaten.

Eta gure partetik MILA ESKER AZKEN HILABETEOTAN ALDIZKARIARI LAGUNDU DIOZUEN GUZTIOI, jasotako laguntza (*HARPIDETZA BERRIAK, laguntza ekonomikoa*) erabat beharrezkoa izan zaigu-eta... Dena dela, "BAKAR BAT" harpidetza kanpainak bere horretan dirau, **HARPIDEDUNAK** egitasmo honen ezinbesteko euskarria zaretelako... Eskerrik asko!



GEU Elkarteen ekimenez egina

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53
e-mail: geugaste@gm.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate.
Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.
Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron.
Argazkiak: Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B.
Maketa: DAV '00. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola.
Araba Bixotzian: Mikel Valverde.
Kolaboratzaileak: Amaia Zaldua, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea:** Edurne Begiristain. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.



zenbakia

1.887

UME 'B' eta 'D' ereduetan

Aurrematrikulazioa: Nabarmena da A ereduaren jaitiera urtez urte 2000-2001 ikasturterako aurrematrikulazio datuek erakusten dutenez A ereduaren eskaria egiten duten gurasoen kopuruak behera egiten jarraitzen du. Datorren urtean 3 urteko 342 haurrek ikasiko dute A ereduaren -Sare Publikotik desagertzeaz dago (eskaintzatik %20 besterik ez da kubritzen), 1.073 umek B ereduaren eta 814k Dn. Azken hamar urteetan %62n jaitzi da A ereduaren eskari kopurua haur eskoletan, eta D proportzio berdinean igo -nagusi Sare Publikoan-. Eredu elebiduna, B, -Sare Pribatuan nagusi-mantendu egin da.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Data:

Maiatzaren 2a-Ekainaren 2a

Ordua hartzeko tfnoak:

945 181 866 (Gasteiz)

94 672 23 61 (Laudio)

Errentaren aitorten motak:

- Rent@raba
(lehen supersinplifikatuak zirenak)
- Autoerrenta
(sinplifikatu eta arruntak)

Errentaren aitortpena egiteko:

Rent@raba

- Aldundiko Ogasun zerbitzuetan (Dohainik)
- Aurrezki Kutxa eta Bankuetan (Dohainik)
- Asesorietan

Autoerrenta

- Aldundiko Ogasun zerbitzuetan (Dohainik)
- Nor bere kabuz: Arabako Diputazioaren web orrian dagoen programarekin

Interneteko helbidea: www.alava.net

Adi:

- 5.000.000 pezeta beherako soldata dutenek ez dute aitortpena egin behar.
 - Seme-alabentzako dedukzio berriak:
 - Lehenengoarekin, 55.000 pezeta
 - Bigarrenarekin, 60.000
 - Hirugarrena eta gainontzekoak, 80.000
- *Hiru urtetik beherakoengatik 25.000 pezeta

- Urte osoan zehar guraso edo aiton-amonekin bizi direnek 31.000 pezetako dedukzioa izango dute.
- Etxebizitza erosteko:
 - "Kreditu fiskala" indarrean sartu da: 4,5 milioi pezeta deduzitu ahal izango dira gehienez.
 - 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen etxea erosi zutenek aurreko legedia edo oraingoaren artean aukeratu ahal izango dute.
- Alokairuko pisuan bizi direnek %10 eta %20 arteko dedukzioa egin ahal izango dute. Azken kopurua jasotzen den soldataren arabera izango da.

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO 1999ko ZERGA

Arabarentzat
ERRENTAgarritasun
berri@

rent@raba

Arabako Foru Aldundiaren zerbitzua

ALDEZ AURREKO TXANDA

Zure aitortpena Arabako Foru Aldundiaren Ogasuneko bulegoetan dohainik egitea nahi baduzu, **dagoeneko aldeaz aurreko txanda eskatzeko dei egin dezakezu.**

945 18 18 66* (Vitoria-Gasteiz, Samaniego 14)

946 722 361* (Laudio, Herriko Plaza z/g)

* Goizean 9etatik ordu 2etara eta arratsaldean 4etatik 6etara, astelehenetik ostiralera.

- Gogora ezazu PFEZko aitortpena aurkezteko epea 2000ko maiatzaren 2tik ekainaren 26ra artekoa dela, eta ezinbestekoa dela identifikazio etiketa eranstea.

Argibide orokorrak: Tel. 945 18 15 55

Arabako Foru Aldundia
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila



Diputación Foral de Alava
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

iritzia

Euskara ahotan; gero abizenetan

Bai, guztiok dakigu jakin abizena edo ikerlari askok hobesten duten deitura "pertsonen familiako jatorri kidetasuna adierazten duen izena" dela. Gauza sinple bezain arrunta dugun arren, ikerkuntza ugari eman dira abizenen inguruan, eta gainera, guk geuk ere ez al diogu ba gure buruari inoiz gure jatorriaz galdetu?

Euskal deituren jaiotza garaia atzera eginez, XII eta XIII. mendeetara iristen gara; Erdi Aro bukaeran hasi eta denboran zehar finkatzea lortu dute hauek. Ahaztu ezinikoa da euskal abizen gehienak etxe izenetatik datozkigula, eta etxe izenok, ingurumenetatik. Toki eta etxe baten izendatzeko ohitura hori lurra iturburu zeukan herri baten ikurra da; indianoena izan zen bezala, euskal kulturarena ere ("Bidarte", "Zelaia", "Usategi"...). Badaude horretaz gain, abereen eta basabereen izenetatik heldu direnak ere. Horietaz pentsa daiteke izengoitiak zirela hasiera batean, eta deitura bilakatu direla denboran zehar. Horrelakoak ditugu "Otsoa", "Bildots", edo "Galtzagorri". Are gehiago, jakin izan dudanez, izengoiti horiek herritarrek emanak izan ziren, nola ziri itxuraz, hala laudorioz.

Askotan, euskal erroa duten deiturak bereizteko oztopoak aurkitu ditzakegu. Oztopo horien artean, deitura luzeek denboran zehar izan dituzten laburtzeak; batzuetan hainbestearino, non ulertezinak bihurtu diren. Adibide bat jartzekoan, "Erregebaratze"-tik datorren "Reparaz", "Mimofonia" delako hitz potoloak ere badu zerikusirik deituren aldaketetan. Honek adierazi nahi duena zera da, hitz baten aldakuntza ematen dela beste batengatik, beraien arteko antzekotasunagatik eta bereziki, berriago den hori ulerterrazagoa delako. Idazkera

aldetik, euskalkien arteko ezberdintasunek ere zailtasunak ondorioztatu ditu. Eta azkenik, kanpo eragin indartsuak; alde batetik espainolak eta bestetik frantsesak bere aztarna utzi baitute, kasu batzuetan euskal sustraia ikustezin bilakatzearino.

Inguruko hizkuntza boteretsuago horiek benetan markatu dituzte gure deitura asko eta asko, bai. Hala ere, sakonki aztertuz gero, guztiok uste baino gehiago kutsatu die euskarak beste herrialde edo eskualde anitzi. Harrigarria dirudien arren, gaztelerazko abizenetan ikus ditzakegun "-ez" eta "-iz" bukaerak euskal toki atzikietan dute sorburua. Beraz, hain kutsu espainolekotzat duten "Martinez" bezalako abizen batek non du egiatan bere sustraia? Eta espainolek hain arto daramaten "Garcia"-k ere non uste duzue duela bere jatorria? Hizkuntza boteretsuagoek badiirudi bere amaraunean harrapatu nahi gaituztela soilik gure euskararen hedadura txikiagoa delako. Baina horrek ez die inolako esku-biderik ematen beraien menpean hartu eta beraien gogoetara kili-kolo jar ditzaten euskal errodun deiturak. Euskal abizenez guk euskaldunok baino gehiago balekete bezala! Ea noiz diren gai harmaila horretatik jaitsiz, begiz begi begiratu eta hau esateko: "Bai, arrazoiz duzue oraingo hontan".

Dena den, gero eta jende gehiagok amets egiten du bere deitura euskal grafiaz idatzirik ikusteaz legezko paper orotan. Baina badiirudi horretan ere ez dugula bidea erraz egiteko aukerarik izango. Izan ere, bete beharreko prozedura burokratikoak harri asko aurkezten ditu bere bidean, baita arrokak ere, nahiz eta azkenaldian gero eta gehiago diren harri horien gainetik salto egiteko prest daudenak. Hala ere, argitu dezagun abizen "euskaldunago" batek gu ez gaituela geu euskaldunago bihurtzen. Denongan oso present dagoen kantu ezagun batek dioen bazala, "ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?" ; baina euskara gure ahotan, ez gure abizenetan.

MAITE BARRERA

motz-motzean

Vital Kutxa izan da iragan hilabeteen berri iturri nagusia Araban. PSE-EE eta PPK bultzaturiko zerrenda burua, Pascual Jover, Vital Kutxako zuzendari ohia, hautatu zuten entitatearen presidenten. Eztabaida gehien sortu duena ELA sindikatuaren ordezkarien jarrera izan da, EHren onespena zuen EAJ eta EAren zerrendaren garaipenaren giltza izanda ere, abstenitzea erabaki baitzuten.



Uztailaren 16 eta 21 bitartean izango da aurtren Gasteizko Jazzaldia. Azken urteetan bezala, Mendizorroitzeko kiroldegia, Principal Antzokia eta Canciller Ayala Hotelean izango dira emanaldiak, Iñaki Añua zuzendariak aurkezpenean adierazi zuenez. Egitarauari buruz Compay Segundoren emanaldia eta Manhattan Transfer -Gasteiza 10 urte etorri gabe- eta Pat Methenyren -ohikoa- itzulera aipa daitezke; Kepa Junkera bizkaitarrak ere parte hartuko du, Bela Bleck blues musikaria laguntzen.

4000 lagun inguruk hartu zuten parte GASTEIZERA Plataforma deitutako apirilaren 8ko manifestapenean. Gasteizko talde, elkarte, erakunde, sindikatu eta alderdi politiko desberdinez osaturiko plataforma honek sakabanaturik dauden Gasteizko preso politiko eta sozialen etorrera eskatzen du, baita zigorraren 3/4ak beteta duten eta-edo gaixotasun sendaezina duten presoen kaleratzea ere.

Alde Zaharreko saltzaileek azken urtean hilean behin antolatatu duten merkatuak ez ditu aurreikusitako helburuak bete. Horregatik, eta ahalik eta erosle gehien erakarri asmoz, aurretik hiru hilabeteetan behin egingo da merkatua, urtaro guztien hasieran. Orain artean antolatutakoa baino handixeagoa izango da, baina Merkatarien Elkarteak ez du kanpoko saltzaileei deitzeko asmorik.



L.L.A.

naturaren isladak

Arabako Natur Institutua Araba eta bere inguruko Ondare Naturala aztertzea, dibulgatzea eta konserbatzea helburu nagusiztat dituen elkarte zientifiko eta kulturala da. (ifnoa: 945 24 66 06)



Txepetxa (Troglodifes troglodifes). Txikia bai baina kantua indarrez zabaltzen du, horrela bere esparru pribatua zein den aldarrikatuz, eme bat edo gehiago erakarri nahian.



ikusi-makusi



Arg. Karlos

ALEIDA GUEVARAren -CHE GUEVARAren ALABA- bisita interesgarria

Aleida Guevara March (La Habanako William Soler Ospitaleko mediku pediatria) apirilaren 25ean Gasteiza etorri eta 26an "CUBA: OSASUN-EREDU GIZATIARRA. MEDICUBA elkartasun proiektu europarraren aurkezpena" izenburuko hitzaldia eman zuen.

Ekitaldiaren antolatzaileak honako hauek izan ziren: MEDICUBA proiektuan dauden Uztailak 26, Askapena, Komite Internazionalistak, Euskadi-Kuba eta Mugarik Gabeko Musikagileak taldeak eta Udaleko Kooperazio Zerbitzua.

18 VITORIA

KITZIKARIA

Euskaltzaleon Elkarguea



Geu Gasteiz

Geu Gasteiz (Gasteizko Euzko-Elkarte) 1993 urtean sortu zen Euzko-Elkartearen sorreraren aldean lan egiten duen pertsona da. Gasteizko Euzko-Elkartearen sorreraren aldean lan egiten duen pertsona da. Gasteizko Euzko-Elkartearen sorreraren aldean lan egiten duen pertsona da.

Abian da euskal kale izendegiarren aldeko bigarren kanpaina

Eu. Euzko-Elkartearen sorreraren aldean lan egiten duen pertsona da. Gasteizko Euzko-Elkartearen sorreraren aldean lan egiten duen pertsona da. Gasteizko Euzko-Elkartearen sorreraren aldean lan egiten duen pertsona da.



KITZIKARIA,

Euskaltzaleon Elkargunearen egunkaritza, Gasteizko kaleetan hamabostean behin, larunbatetan -martxoak 4, 18, apirilak 1, 15..., Arabako Egunkariaren barruan aurki dezakezue... Adi, bada, euskarazko orrialde horiei!!

araba bixotzian Mikel Valverde



ETxaguen Inguruak

Mikel Valverde 2000



GEU ELKARTEAK antolatua...



"TROKA Abentura" taldeak gidatua

ABENTURA ASTEBURUA: Eskalada, Rapel eta Tirolina



**Maiatzaren 20an, larunbata, La Lezen ekintza
hauek egiteko aukera paregabea duzue!
Plana honako hau da:**

- 20 laguneko taldea (gutxienez). Beraz, deitu lehenbailehen taldea osatzen joateko!
- Trenez
- Prezioa: 3.800 (Bazkideak) / 4.100 (Arrunta)
- Izena emateko epea: Maiatzak 10

*Esperientzia hau ondo ateraz gero, asmoa da GEUn talde bat sortzea hileroko ekintza bat egiteko (abantailak: merkeagoa, trebetasuna...).

ANIMA ZAITEZTE ABENTURAN MURGILTZERA!!!



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

Hamabosgarrenean ere Kanpezuko Kultur Astea abian da.

Aurten Betagarri Kultur Elkarteak Ezkanda Gazte Asanbladarekin batera antolatu du



Aurten Kanpezuko Kultur Astea ekitaldiak hamabost urte beteko ditu. Horretarako eta urtero bezala hainbat kultur ekintza eta jaialdi antolatu dituzte Betagarri Kultur Elkartekoek Ezkanda Gazte Asanbladakoekin batera San Isidro egunaren inguruko astean.

Asteari hasiera emateko duela bi urte sortutako Herri Kantu Jaialdia ospatuko da maiatzaren 6an, herriko Kultur Etxean. Jaialdi honetan eskualdeko kantuzaleek esku hartu ohi dute, zaharrak nahiz gazteak edo umeak. Kantaldi honetan nork bere tre-beziak erakusteko aukera izaten du gainerako herritarren aurrean. Horixe baita antolatzailleen asmoetariko bat, herritarren parte hartzea alegia.

Astean zehar beste hainbeste jarduera izango dira, esate baterako, Ibernalo

Ikastolako umeek egingo duten antzerkia, herri kirolen inguruan antolatutako erakus-taldiak eta jolasak edota Takolo, Pirritx eta Porrotxen emanaldia. Hau guztiau helburu argi batekin, eskualdeko umeek euskara bizi dezatela era atsegina eta ludiko batean.

Ostiral eta larunbata gauetan musika izango da herriko plazan eta gazteen "zuloan". Baina lehenago, larunbata goizean, azken urteotan tradizio bihurtzen ari den "mugarrei bisita" deituriko mendi txangoa izango da. Ekimen honen helburua da gazte-agoek ikastea Kanpezu herriko mugarrak non dauden eta gure arbasoek nolako deskribapenak egiten zituzten mugari hauek non zeuden kokatuta argi eta garbi gera zedin. Arratsaldean euskal dantzak ez dira faltako eta dantzaldi herrikoia antolatu dute Joar dantza taldeko gazteek.

MENDIALDEKO ERREBANTXA SARIA ETA OSKORRI ASTEBURURAKO

Aurtengo berrikuntza bertsolaritzaren aldetik datorkigu. Aurten Arabako Mendialdean sortu berria da Bertso Eskola eta aurrerantzean jarraipena edukiko duen bertso saria antolatu nahi izan dute. Bertso sari honek edo, hobeki esanda, Mendialdeko Errebantxa Sari honek bi helburu ditu: alde batetik, bertako bertsozaleen sustatzea eta, bide batez, Araba osoko bertsolariak bultzatzea plaza gehiago egin ahal izan ditzaten.

Errebantxa izenak bat baino gehiago harritu dezakeen arren arrazoi argia dauka. Sari honen helburua da San Prudentzio-Estibalizko Ama Sarian -apirilaren bukaera

aldera- finalista gelditzen direnen artean errebantxa moduko bat antolatzea hila betea igaro baino lehen. Horretarako bi talde osatuko dituzte, San Prudentzio-Estibalizko Ama Sarian geratutako lehenengo biak beste lauen kontra. Taldeka lan egingo dute eta bistan denez, lehenengo biek lan bikoitza egin behar izango dute. Sariaketa hau maiatzaren 13an, larunbatekin, egingo da Kanpezuko Kultur Etxean, arratsaldeko zortzietan hasita.

Oskorri ere izango da Mendialdeko herri horretan. Pub ibiltariaren muntaiarekin joango dira hilaren 14an, igandearekin, arratsaldeko sei t'erdietan.

*Testua eta argazkiak: Mikel Celestino
(Betagarri Kultur Elkartea)*




LIBURUDENDA

axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK



zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Elkartasun uda

Udako oporretarako planak egiten hastean atzerrira brigadak bidaltzen dituzten elkarteetara jotzea erabakitzen dute hainbat euskaldunek. Askapena eta Komite Internazionalisten asmoen berri jakitera jo du GEUK; bi elkarteak interesatutako jendearen deiak jasotzeko zain daude brigadak osatzeko. Taldeak garaiz osatzearen garrantzia azpimarratu dute bi elkarteek, oporrak igarotzeko aukera bat gehiago izateaz gain hori baino gehiago ere badirela kontuan izanda, bidaiei helburuak landu eta jarrerak zehaztu behar direlako, heziketarako denbora behar delako alegia.

Askapenarentzat bidaia hauek brigadak jasotzen dituzten herriek gureganako duten elkartasun jarreraren adierazle dira, taldeak hango jendeari laguntzera joaten diren ideia bazter-tuz. Hilabeteko ikastaro trinkora bidaltzen ditu Askapenak brigadistak. Ikasgaia, bakarra: internazionalismoa.

Komite Internazionalistek komunikabideek 'oso ondo' erakusten diguten errealitatean murgiltzea bilatzen dute: jendea eta euren eguneroko bizitza ezagutu eta hango elkarteekin lan egin.

Komite Internazionalistak

Zapatari kalea, 95 - Tfnoa.: 945 149 379
(astelehen-ostegunak 20:00etatik aurrera)

Kuba, Kolonbia, Mexiko eta Nikaraguarako brigadak prestatu dituzte Komite Internazionalistek. Hilabete edo bi hilabeteko egonaldirako aukera ematen dute Klek, uztaila eta abuztuaren.

Mexikon Txiapaseko komunitateen bizimodua ezagutzeaz gain, Yucatán eta Guerrerora ere joango dira brigadistak. Eta kontrastedun herri haren berri zehazkiago izateko hiriburuan lan egiten duten zenbait herri-talderekin biziko dira astebetek.

Kolonbian lekukotasun lana egitea da lehentasuna: giza eskubideen kontrako erasoak salatu eta ahal den neurrian ekidin.

Nikaragua eta Kubara doazenak gogotik egingo dute lan; Nikaraguan fruta-arbolekin eta Kuban martxan jartzen ari diren negutegi berri batean.



Aiztogile kalea, 15 behea - Tfnoa.: 945 280 847

Hilabeteko hiru brigada antolatu ditu aurtengo udarako Askapenak. Helmugak, Kuba, Txiapas eta Venezuela. 10 eta 20 lagun bitarteko taldeak irtengo dira uztaila-abuztuaren.

Gasteizko jendeak osatuko du Kubarako brigada. Eta hori horrela izango da bidaia eta gero epe ertainean lan egiten jarraituko duen taldea lortu nahi delako. Bertako osasun arloa aztertuko dute bereziki, horretaz gain egunean -eguneko arazoak ezagutuko dituzte -blokeoa-, eta "elkartasunaren gaia duela urte asko eta bitarteko garrantzitsuekin jorratzen duen herriarengandik elkartasun lezioak hartuko dituzte brigadistek".

Txiapaserako brigada Bilbon antolatu-ko da, baina nahi duen orori zabalik dago. Laguntza eta lekukotasun lana egingo dute gehienbat. Venezuelara joango den taldea, berri, esperientziadun Askapenako jendeak osatuko du, datozen urteetan brigadak bidali ahal izateko kon-taktuak egitera joango baitira.

Azkenik, Ipar Europan zehar turismoa eta militantzia lana uztartuko dituen kara-banarako gonbitea egiten du Askapenak. Kasu honetan Euskal Herriaren berri ematea da helburua.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldieran plaza • GASTEIZ

Idazkaritza

(E U S K A R A Z)

D SARBIDERAKO BALDINTZAK

- Batxilergo titulua (LOGSE edo IEE).
- UBI gainditua izatea.
- LH-2-ko titulua.

D IRTEERAK

- Lan mundurantz, Goi Teknikari titulazioa eskuratuta.
- Unibertsitaterantz (hautespen azterketaren bidez), Unibertsitate Eskoletarantz.

INFORMAZIO GEHIAGO:

DIOCESANAS-MOLINUEVO

San Ignazio kalea, 6

Tel.: **945 26 07 77**

E-mail: molinuevo@diocesanases.educanet.net


www.educanet.net/diocesanases



DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

2000-2001 ikasturtea





Diocesanas-Molinuevo

Lanbide Heziketan

euskarazko lehen urratsak

Derrigorrezko hezkuntzan eta unibertsitatean euskarak duen protagonismoa amaierarik gabeko eztabaida da Euskal Herrian, baina ezin da ukatu gazteen hezkuntzako euskal ereduak eta fakultateetako euskal adarrak garatuz joan direla. LHn, aldiz, oso gutxi dira euskaraz ematen diren ikastaro edo, orain deitzen diren bezala, zikloak, eta ez Araban bakarrik, Euskal Herri osoan baizik. Amaia Ruiz, Molinuevoko Goi Zikloetako arduradunak eta Kike Korres irakasleak azaldu duteenez, ezin da ziurtatu zergatik dagoen unibertsitatea eta LHren arteko ezberdintasun hori: "Prestakuntza falta aipatzen da, baina bezkuntza materialik ez dagoela ere, baina agian derrigortasun eza da arrazoirik nagusienetakoa".

LANGILEEK BULTZATUTA

Molinuevo eskola gasteiztarraren kasuan hezkuntzaren euskalduntzea orain arte atzeratu bada ez da irakasle-en prestakuntza eta gogo faltagatik izan. "Diocesanaseko zuzendaritzak aspaldi erabaki zuen irakasle berri guztiek elebidunak izan behar dutela eta egun irakasleen erdia euskaldunak gara", adierazi du Korres irakasleak. Horren adierazle da Diocesanasek ez duela irakaslerik kontratatu behar izan Idazkaritzako goi ziklo osoa euskaraz emateko, behar

diren bederatziak plantilan dituelako.

Euskarazko zikloa ezartzean gainera irakasleek esku hartu dutela esan dute Korres eta Ruizek, langileek bultzatutako ideia izan baita: "Guk lan bikoitza egin beharko dugu eskolak prestatzeko, eta soldata berdinarekin truke, baina argi dago gaur egungo egoerak euskalduntzea eskatzen duela".

DBHn B eta D ereduaren goranzko jarrerak LHren euskalduntzea bultzatuko du "beheko kurtsoetan euskal ereduak gero eta garrantzi handiagoa dutelako eta egoerak hori eskatzen dutelako, eskaerari erantzun behar zaiolako", Kike Korresen iritziz.

Zergatik Idazkaritzako goi zikloa euskaratu eta ez beste bat? "Agian Diocesanaseko langileei eta ikasleei begira errazena, logikoena zelako. Baina hau lehen urratsa baino ez da, euskalduntze prozesuak jarraituko du".

ERANTZUNAREN ZAIN

Maiatzean zabalduko da datorren ikasturterako izena emateko eskaria egiteko epea eta ekainean bertan matrikula egin beharko da. Ordura arte ezingo da jakin Molinuevok eta Diocesanasek egin duten apustuak izango duen erantzuna. Diocesanas-ekoak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin hitzartutako eskolak dira eta "horrek esan nahi du gutxienez 15 ikasle-

2000-2001 ikasturtean Lanbide Heziketa (LH) aukeratzen duten ikasleek euskaraz ikasi ahal izango dute Gasteizen lehendabiziko aldiz. Diocesanas-eko Molinuevo ikastetxean emango den Idazkaritzako goi zikloa -osoa- izango da euskaraz ikasi ahal izango dena, hain zuzen ere.

IDAZKARITZAKO GOI ZIKLOA

Molinuevoko ikastetxean baino ezin da Idazkaritzako goi zikloa ikasi Gasteizen egun. Zikloak ikasturte osoa eta hiru hileko iraupena du. Ikasturtean zehar, irailetik ekainera bitartean, moduluak -ikasgaiak- azaldu eta ikasten dira eta hurrengo hiruhilekoan, irailetik urte amaiera arte, lantokiko prestakuntza egin behar dute ikasleek, enpresetako praktikak alegia. Guztira, ikasgelako lana eta praktikak kontuan hartuta, 1.300 orduko zikloa da Idazkaritzakoa.

Goi mailako zikloa denez, gehiengo titulazio akademikoa duten 18 urtetik gorako neska-mutilek parte hartzen dute. Idazkaritzako ziklo horretan sartzeko Batxilergoa eta UBla gaindituta izan behar dute edo LH-2ko tituludunak izan.



MODULUAK

- Komunikazioa eta lanbide-harremanak
- Zerbitzuaren antolamendua eta idazkaritza-lanak
- Datu-kudeaketa
- Dokumentuen eta informazioaren elaborazioa eta aurkezpena
- Zuzenbide-hastapenak
- Atzerriko hizkuntza (ingelesa)
- Bigarren atzerri-hizkuntza (frantsesa)
- Lan-prestakuntza eta orientabidea
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza
- Lantokiko prestakuntza

ren taldea behar dela ideiarekin aurrera jarraitzeko, 15 bildu ezean ez legoke euskarazko ziklorik, teoriarik behintzat". Aurten, 1999-2000 ikasturtean, 50 ikasle inguru egon dira Gasteizen egiten den Idazkaritzako goi ziklo bakarrean, Molinuevon bertan.

Erantzunaren zain ere, Lanbide Heziketa eta Diocesanaseko eskolak apurka-apurka euskaldunduko direla ziurtzat eman dute Ruiz eta Korres irakasleek. Diocesanaseko lau ikastetxeek 106 gela dituzte kontzertaturik Eusko Jaurlaritzarekin, "orduan euskarazko gela bat jartzeko gaztelarazko bat kendu behar da; aldaketa astiro eta berez egingo da, gazteenek eredu euskaldunak eta elebidunak aukeratzeko dituztelako".



"Diocesanaseko zuzendaritzak aspaldi erabaki zuen irakasle berri guztiek elebidunak izan behar dutela eta egun irakasleen erdia euskaldunak gara" (Kike Korres)

Lanerako prest

Urtero 50 bat idazkariri ematen die titulua Molinuevok, eta erdiak gutxigora-behera praktikak egin dituen enpresan lanean jarraitzen du. Ikasle bat hartzeko interesa duten enpresek jotzen dute zuzenean Diocesanasera, "eta behar baino enpresa gehiago izaten ditugu beti". Praktiketako epea amaituta lanean segitzea normala iruditzen zaie irakasleei: "Ikasleak bidaltzea eskatzen dutenean lana daukatelako izaten da, noski. Ikasle bat lanean izatea izugarritzko pagotxa da enpresentzat ezer ordaintzen ez dutelako, baina hiru hilabete eta gero, gazteak enpresaren jardura ikasi duenean, logikoa da lanpostu hori mantentzea".

Langai, EAEko zerbitzuarekin batera egiten du lan Diocesanasek. Ikastetxeak lan poltsa bat du eta Langaik bertan bilatzen ditu enpresen eskaerari erantzuteko langileak. Enpresek langilearen ezaugarriak eta bete beharreko baldintzak zehazten dituzte eta behin baino gehiagotan eskatu izan dute ikasle edo behargin euskalduna bidaltzea: "batzuek ordenagailuekin iaioak direnak nahi dituzte, beste batzuek ingeles maila altua dutenak eta euskaldunak ere gero eta sarriago eskatzen dituzte", azaldu du Kike Korresek.

Enpresek langile euskaldunak eskatzeak goi ziklo hau euskaraz jartzea bultzatu duen galdetuta, "guztiak lagundu du. Ez da arrazoi bakarra izan, egoera eta eskariaren faktore asko kontuan eduki behar dira", erantzun du Amaia Ruizek.

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



**BEIRATE
ESTUDIOA**

**MIKEL
DELIKA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

AMETSAK:

Cannabisa edota marihuanak jarraitzaile ugari izan ditu betidanik Euskal Herrian.

Landare horren inguruan sortutako "mugimendua" 80. hamarkadan izan zen nagusi, batik bat legalizazioa eskatzen zuten kolektibo, musika talde eta tabernengatik. 90. hamarkadan, berriz, beherakada nabaria izan zuen marihuanak jendearen artean. Alta, azken urteetan "modan" jarri da berriro ere, baina ez soilik erretzeko, beste esparru askotara zabaldu baita. Hori konprobatzeko Gasteizko Alde Zaharreko Errementari kalean dagoen Ametsak denda bisitatzea besterik ez da egin behar. Zergatik? Bada, kañamoz -kalamua- egindako produktuak saltzen baitira bertan.

Marihuana



Denda irekitzeko ideia Holandara egindako bidaiak batetik hartu zuen Richardek, dendako jabeetako batek. Bertan marihuana legala da eta merkatu oso bat dago horren inguruan, "konturatzen zara ez bakarrik erretzeko, baidzik eta gauza asko egiteko balio duela landare horrek", azaltzen digu. Hortaz, bidaiak eta gaiaren inguruan zituen ezagutzek bultzatuta, Ametsak denda sortzera animatu zuten.

Richard eta bere kideak ireki nahi zuten dendaren proiektua aurkeztu zioten "Gazte Enpresa"-ri. Baina konturatu ziren trabak baino ez zizkietela jartzen eta erabaki zuten

"Argilanen" aurkeztea. Bete beharreko paper eta baldintzak bete ostean onartu egin zieten egitasmoa. Eta horrela, aurtengo urtarrilaren 25ean Errementari kalean bikote gazte honek amestutakoa egia bihurtu zuen: Gasteizen kañamoz egindako produktuen aurreneko denda zabaltea.

"KOLOKATZEN" EZ DUTEN PRODUKTUAK SALGAI

Gauza asko eta oso desberdinak aurki daitezke Ametsak-en. Kalamuz eginda dagoela sekula pentsatuko ez zenukeena ere bertan topa daiteke. Arropa, janaria, jaboia... "Baina honek



Erakuslehen



GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (KUTXI) kalean

Confecciones
Pinedo
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

'kolokatzen' al du? Alegia, pasta hau janzeko gero... 'moroi' bat har dezaket?", Richardi botatzen diodan galdera. "Izan ere jende askok uste izango du mariatzko porro bat erretzea bezalako efektuak sortzen dituela, ez?". Berak, lasai asko, gauzak argitu eta azaldu egiten dizkit: "Ez, ez zara kolokatzen. Kalamua eta marihuana finean gauza bera da. Gertatzen dena da kañamoak ia ez duela THC sustantziarik, ez bederen ilegaltzat jotzeko bezainbeste, hortaz, ez du inolako efekturik sortzen goxokiak, pasta, edota txokolata jateak". THC sustantzia handiagoa duena marihuana landarea da, baina landareak emea behar du, izan ere, arrek ez dute THCrik. Legalitate eta ilegalitate kontuak darabiltza Richardek marihuanaz eta kañamoaz mintzatzerakoan: "Marihuana landatzen baduzu ezin dizute ezer esan, landarea bazi, emea izan eta loratzen den arte. Kasu horretan ilegala litzateke landare hori izatea".

KAÑAMOA, "MUNDUAREN SALBAZIOA"

Adin eta mota guztietako jendea doa Ametsak-era zer edo zer erostera. "Batziek ez dute erretzen, baina arropa, giroa bera... atsegin dute", dio Richardek. Berak azaltzen digunez, dendara doan bezeroaren edade ohikoena 20-30 urte bitartean dago, baina hortik gorakoak ere sarri doaz haziak erretzeko produkturen bat -desberdinak eta egokiak landare honetarako-erostera adibidez. "Aurreko batean 40 bat urteko emakume bat etorri zen baziak erostera, izan ere ez zioten tabernetan saltzen



"Kalamuz guztia egin daiteke, landare guztia aprobetxagarria baita"

eta emakumeak ez zekien nola egin marihuana lortzeko", diosku Richardek.

Egia esan harritzekoa da ikustea zenbat gauza egin daitezkeen kañamoz. Richardek landarearen onurak jakinarazten dizkigu: "Kalamuz guztia egin daiteke, landare guztia aprobetxagarria baita. Papera egin daiteke eta ez genduke zertan zubaitz bat ere moztu... Kañamoa munduaren salbazioa izan zitekeen".

Horrelako denda bat irekitzeko asko

jakin behar da marihuanaren munduaz, eta argi dago dendaren jabeek askotxo dakitela... "14 urte baino ez nituenean imajinatzen nuen mendian efektoren bat izango zuen landararik egon behar zuela, horretaz gain, gaiaren inguruan irakurtzen hasi nintzen eta begira nola bukatu dudana: saltzen. Hori bai 'teorikoki' ez kontsumitzeko". Argi gera dadila, beraz, eta inork ez dena ez dezala pentsa.

Garagardoa... eta gonak!!

Ametsak-en, besteak beste, honako gauzak aurki ditzakezu salgai. Den-denak kañamoz eginda!!

- Edari energetikoa (bitaminak eta guzti).
- Limonada eta garagardoa.
- Gelak, txanpuak eta aurpegiarako kremak.
- Lurrinak.
- Txokolata, eta muesliak.
- Pasta.
- Alkandorak, prakak, kazadorak, berokiak eta gonak.
- Poltsak eta motxilak.
- Goxokiak.
- Erretzeko materiala (pipak, papera, metxeroak...).



"Kañamoz egindako produktuak"

Errementari kalea, 38 behea
01001 GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 264 643

Gazteak, ikasketak eta lana

Eguno gaztedia duela 10 edo 20 urtekoarekin alderatuz desberdina dela denok dakigu, eta nahiz eta batzuek kontrakoa pentsatu, gaur egungo gazteok ere baditugu geure amets eta helburuak bizitzan. Atal honetan neska-mutil gazte batzuek beren asmoak egun hain zail dagoen lan mundu horretan azaltzen dizkigute.

1) Ze ikasketa dituzu? Eta zergatik aukeratu zenuen hori?

2) Nola Ikusten duzu zure etorkizuna?



Jaione. Ikaslea

1.-Ni Zuzenbidea ikasten ari naiz. Ez dago ikasketa hauek egitera eraman ninduen arrazoi berezirik; gustatzen zitzaidan arloa zen, hori baino ez.

2.-Abokatu bezala lan egitea gustatuko litzaidake; badakizu, nire bulego pribatua izan eta hori guztia.

Ibone. Ikaslea

1.-Magisteritza ikaslea nauzue. Txikitandik nuen nik pentsatuta andereño izatea.

2.-Lana aurkitzea gaur egun oso zaila da eta nire arloan batez ere, geroz eta haur gutxiago baitaude. Honela ba, ikasketa hauek amaitzean ezer aurkitzen ez badut, pedagogian espezializatzea pentsatuta nuen.



Jonatan. Ikaslea

1.-Ni Ekonomiketako ikasketak bukatzeaz nago. Zenbakiekin beti ondo moldatu naizenez ikasketa hauek egitea pentsatu nuen.

2.-Vital Kutxarako oposaketak prestatzen ari naiz...



Estitxu. Ikaslea

1.-Ni Medikuntza ikasten ari naiz Iruñean. Nire aita ere medikua da eta berak animatu ninduen bere pausoak jarraitzera, eta ez naiz batere damu, izugarri gustuko baitut.

2.-Ni oraindik hirugarren mailan nago, eta gauza bat eta bestea dela gutxienez beste bost geratzen

zaizkit. Medikuntza ikasketak luzeak eta gogorrak dira, hala ere, gustuko dituzun gauzak errazago egiten direla esaten da, eta hori da nire kasua.



Naiara. Ikaslea

1.-Ni Ekonomikak egiten hasi nintzen Bilbon, baina horrenbeste zenbaki ikustez aspertu eta Gasteizera etorri nintzen Enpresaketak egitera. Enpresaketetara aldatzearen arrazoi honen edukin zabalagoa izan zen.

2.-Ekonomikak ikasiz gero nire etorkizuna mugatuagoa ikusten nuen, baina Enpresaketak bukatu eta gero enpresa baten barnean lan ezberdinak egiteko gaitasuna izango dudala uste dut, eta gaur egungo lan egoera ikusita hori da garrantzitsua nire ustez.



Mariano. Ikaslea

1.-Ni Injinerutza industrial ikasten ari naiz. Batxilergoko ikasketak bukatu eta gero ez neukan batere argi zer ikasi. Garai hartan injineruak behar zirela entzun nuen eta horrek eraman ninduen Injinerutza ikastera.


2.-Aurreko kurtsoetan lantegi batzuetan hartu ninduten praktikak egiteko eta orain, azkenengo kurtsoan nagoela, lantegi horietako baten baten deia jasotzea espero dut.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

Ray-Ban

Ray-Ban gaur egungo begiradak.
MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

KOZKORTUZ



Lehiaketa txiki park

Domingo Beltran kalea, 53 - 01012 Gasteiz - Tnoa. 945 20 00 02







Apirileko erantzuna: Marraskiloak eta perretxikoak

*Gutun eta marrazki polit asko jaso ditugunez APIRILEKO ZOZKETAN 4 saritu egotea erabaki dugu (sarrera bana). Hona hemen irabazleen izenak eta bidalitako marrazkiak. Zorionak!!!

**Ez gehiago itxaron,
egin zaitez
gure klubeko
bazkide**

• Oier Epelde • Unai • Leire Altuna • Danel Altuna •



SARIA: Txiki Park-erako 2 sarrera

Maiatzeko galdera:

Zenbat urte bizi daiteke dortoka bat gehienez?

Bidali erantzuna lehenbailehen...gure helbidera (4. orrialdean) izena eta Telefonoa zehaztuz

Itziar eta Jon, bikiak



11 urte
Abendaño Ikastola
6. maila

11 urte
Abendaño Ikastola
6. maila

**Jon: “Alkate banintz
kiroldegi bat egingo nuke
San Martin auzoan”**

**Itziar:
“Arraultz frijituak
egiten ausartzen naiz”**

1- Zenbat ordu lo egiten duzue egunero?

I- Hamar ordu

J- Hamar ordu

2- Eta asteburuetan, zein ordutan jaikitzen zarete?

I- 10,30etan

J- 11,30etan

3- Zer gosaldu ohi duzue?

I- Laranja zukua eta esnea

J- Laranja zukua eta yogurra

4- Zuen janari faboritoena?

I- Patata frijituak eta espagetiak

J- Zopa eta patata frijituak

5- Eta edaria?

I- Ura

J- Ura

6- Pelikularen bat?

Tarzan edo Toy Story

7- Ikasgai gogoko bat?

I- Mate

J- Ingurunea

8- Andereñoak edo maisuak?

I- Andereñoak

J- Andereñoak

9- Piropo bat botatzen dizuetenean zer egiten duzue?

I- Mutil horrengandik paso egiten dut

J- Barre egin

10- Abesti bat?

I- Oskorriko baten bat

J- Cartoons-en baten bat

11- Bizikleta lehen aldiz hartu zenutenean erori al zineten?

I- Batzuetan erori izan naiz

J-Bai banketan kolperen bat hartuz

12- Gogoan duzuen abentura edo anekdotaren bat?

I- Trineoan maldaz behera nihoala sekulako kolpea hartu nuenekoa

J- Nire arrebarekin ur-jauzi batera joan nintzenean igelak ikustera

13- Alkate bazinete zer egingo zenukete?

I- Zine bat jarri San Martin auzoan

J- Kiroldegi bat egingo nuke San Martin auzoan

14- Animalia bat?

I- Tigrea

J- Jaguarra

15- Zuen hobby handiena?

I- Abestea

J- Futbolean jolastea

16- Astero zenbat egun joango zinatekete ikastolara?

I- Lau edo bost

J- Lau edo bost

17- Nagusiak zaretenean zer izan nahi duzue?

I- Aitona-amonei lagundu edo andereñoa izan

J- Albaitaria, animaliak sendatzeko

18- Ze hiru gauza eramago zenituzkete irla batera?

I- Janaria, arropa eta jolasen bat

J- Laban bat, etxeak egiteko tresnak eta arropa

19- Asteko egun hoberena?

I- Ostirala

J- Asteazkena

20- Ikastolako atsedenalbian zein da zuen joko faboritoena?

I- Futbola

J- Futbola

21- Klase amaieran zer nahiago duzue, txirrina edo abesti bat?

I- Txirrina

J- Txirrina



22- Amets beldurgarri bat?

I- Esnatzerakoan ez ez naiz oroitzen

J- Lehiotik nenbilen eta korda batez helduta zegoen kutxa batean erori nintzen, baina korda hori apurtu zen eta erortzerakoan bat-batean esnatu nintzen

23- Etxeko lanetatik zeintzuk egin ohi dituzue zuek?

I- Mahaia jarri, maindireak jaso

J- Mahaia jarri eta etxea txukundu

24- Nola egiten da patata tortila?

I- Ideiarik ez, baina arraultz

frijituak egiten ausartzen naiz
J- Ez dakit, baina txorizozkoa egunen batean egin izan dut

25- Nolakoak dira Martitzeko biztanleak?

I- Burubandiak, berdeak eta antenekin

J- Berdeak, hiru begi eta antenekin

Testua: Itziar Uriarte Fdz. de Trokoniz • Argazkiak: Edorta Sanz

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ



XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*

ITURRIETA

Sagardotegia



ITXITA maiatzaren
7tik ekainaren 1a arte

**Eta ekainetik aurrera adi
UDAKO PROGRAMAZIOARI!!!**

Arraga auzoa.

tfnoa: 945 44 53 85

ARAMAIO

adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundación

"Agintariek jendearen eskaerak entzungo balituzte arazo asko konponduko lirateke"

Elena Perez de Mendiola

- Ama Eltziegokoa eta aita Gasteizkoa dituen 26 urteko gasteiztarra da. 1973ko uztailaren 20an jaio zenez gero Cancer fina dugu Elena. Psikologia ikasi ondoren buruko osasunaren inguruko master bat egin zuen bi urtez. Orain ume batzuk zaintzen ditu, eta lan bila dabil.

-Bost urte daramatza Elenak euskaltasunean euskara ikasten, eta etxean gurasoekin, amona edo nebarekin praktikatu ezin dezakeen arren, ikaskideekin eta adiskideekin egiten du.

-Irakurtzea, dantzatzea eta poteatzea ditu gustuko. Umore aldaketa asko dituela aipatuz gazte honek bere burua arrarotzat definitzen du, "askotan nire buruarekin haserretzen naiz eta, konturatu gabe, ingurukoekin haserre nagoela ematen du; betiere etxean -argitzen du Elenak-, adiskideekin inoiz ez."

• **Duzun biziorik handiena?**
Erretzea (dio zalantzarik gabe), 12 urte nituela hasi nintzen. Orduan oso gutxi erretzen nuen, benetan hemezortzi urterekin hasi nintzen.

• **Eta bertutea?**
Egiazalea izatea, gezurrek oso gaizki sentiarazten bainaute.

• **Zer eskatzen diozu bizitzari?**
Edonork eskatzen diona, ezta?, zoriotsua izatea, eta arazo gutxi izatea.

• **Zer eskatzen du herriak?**
-Gauza asko eskatzen du herriak... (putz egiten du), bakea, askatasuna... Agintariek jendearen eskaerak entzungo balituzte arazo asko konponduko lirateke.

• **Jeniorik baduzu?**
Bai, etxean edota oso urduri nagoenean kaleratzen dut.

• **Zerk ateratzen zaitu zure onetik?**
Gezurria den jendeak, gezurrak berak.

• **Geu elkarte eta aldizkariaren berririk bezeneukan?**
Bai.

• **Egunkariaren bat?**
Etxean dagoena, El Correo ale-gia. Etxean erosten dutelako irakurtzen dut.

• **Pelikula onen bat?**
Tomates verdes fritos.

• **Telebista programarik?**
Quieres ser millonario.

• **Gustuko aktorearen bat?**
Cayetana Guillen-Cuervo.

• **Gizonezkoen artean?**
Morgan Freeman.

• **Jaki goxoren bat?**
Babarrunak.

• **Zure gorputz atalik politena?**
... Belarriak. Nire hortzak ere gustatzen zitzaizkidan baina behin esan zidaten handiegia zirela eta zaldiaren antzerakoak zirela; orduan ez zaizkit hainbeste gustatzen.

• **Txikitako oroitzapenik?**
Pila! Nire aitona-amonen etxean nire lehengusuekin nengoenean...; han denbora asko pasatzen nuen nire gurasoek lan egiten zutelako.

• **Oporrak non?**
Oso gutxi irtien naiz, igual

Parisera, han ikusteko gauza asko daudelako. Izan ere, gauzak ikusteko eta ezagutzeko dituzten lekuak gustatzen zaizkit.

• **Liburu gomendagarrien bat?**

-Uf, pila! La edad de la piedra, El Médico, Como agua para chocolate,...

• **Idazleren bat?**
Ken Follet, Isabel Allende...

• **Munduan den denbora guttia izanez gero, zer edo zertarako?**

Kitarra jotzen ikasteko, hasi nintzen baina ezinezkoa izan zen. Trikitixa ere asko gustatzen zait eta ikasi nahi nuke.

• **Gasteizen biziko ez bazina, non?**

Uste dut Gasteiz bezalakorik ez dagoela... Hortaz, bat aukeratze-arren beharbada Granadan.

• **Gasteizek duen onena?**
Giroa, jendea, oso jende gutxi bizi garela, eta hiriaren itxura eta egitura.

• **Txarrena?**
(Barre egiten du) Alkatea, eta

batez ere dagoen elitismo kutsua.

• **Euskaraz bizi daiteke Gasteizen?**

Bai, noski.

• **Zer nahiko zenuke jendeak esatea zu hil eta gero?**

Beraiekin ondo portatu nintzela.

• **Zein duzu momentuko kezkarik larriena?**

Batik bat lana.

• **Zure ikasketekin zerikusirik daukan lana topatu nahiko zenuke, beraz?**

Orokorrean lan on bat topatzearekin nahikoa lizateke, nire ikasketekin zerikusia daukana edo ez. Diru nahikoa irabaztea nire bizitza egin ahal izateko besterik ez.

• **Gustuko kolorearen bat?**

Oso zalantzatia naiz, kolore asko gustatzen zaizkit: urdina, morea...

• **Musika talde gogorik?**
Tahures Zurdos eta Silvio Rodriguez.

*Apirilko aleko elkarrizketa Ainhoa Ferronek egin zuen, eta ez, agertu bezala, Josune Velez de Mendizabalek

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege alea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

**Xabier
taberna**

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (Kutxi), 23



Gasteizko II. Zinemaldia

Maiatzaren 10etik 14a bitartean Guridi Zinemetan

Aurten berriro ere Gasteizek atepak irekiko dizkio zinemari. Izan ere, maiatzaren 10a eta 14a bitartean Gasteizko II. Zinemaldia izango baita. Ekimenaren bultzatzaile eta sortzaile Fila II

Kultur Elkarteak dugu. Elkarteak Gasteizen ikus-entzunezkoen munduaren inguruan mugitzen diren hainbat kazetarik eratzen dute. Gure hirian ere zinemaldi bat izatearen ideiak aspaldi berotzen zituen eta, azkenik, eurek beraiek antolatzea erabaki zuten. Aurrekoa -lehenengoa- "zertxobait bat-batekoa eta azkarra" izan zela onartzen badute ere pozik azaltzen dira, baina bigarren honekin iazko muga gainditzea espero dute.



Iazko omendua, Jose Luis Lopez Vazquez

Aurtengoa emanaldi landuagoa eta berezituagoa izatea nahi dutenez, Gasteizko II. Zinemaldiak errealizadore berriengan izango du bere ardatz nagusia: "Errealizadore berriena jo dugu genero interesgarrirentzat, hain zuzen ere zinemagile gazte eta hasi berriei beren burua ezagutzera emateko aukera luzatu nahi diegula". Honez gain, iazko atal berberak izango dira aurten ere: umeentzako emanaldiak, jatorrizko bertsiok, laburmetraien "emanaldi golfoa".

Horrela bada, bost egunetan zehar hemezortzi film baino gehiago proiektatuko dira eta horietatik guztietatik errealizadore berrien -aipatzekoa da hauek pantailetara aterako dituzten lehenengo lanak direla- luzemetraietako seik lehiaketarako sail ofiziala eratuko dute. Sei hauen artean zinemaren munduko hainbat profesionalek osatutako epai berezi batek hautatu film hoberenak Victoria Saria eskuratuko du.

HAURRENTZAT, EUSKARAZ

Esan bezala, sail guztiak batuta orotara hemezortzi-hogei bat lan proiektatuko dira Guridi Zinemetako aretoetan gure hiriko II. Zinemaldian. Haurrentzako animaziozko pelikulak goizeko ordutegian emango dira, 10:30etan. Film hauek guztiak euskaraz izango dira. Hemen izenburuak: "Bizitzaren zuhaitza", "Jack, Amazoniako Erregea", "Ahmed, Alhambra-ko Printzea" eta "Megasonikoak".

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ

Argazki - Estudioa


Erramun

Heradio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 13 71 02 Tfnoa: 26 19 91
01006 01004

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ



Fernando Guillen aktoreak omenaldia jasoko du aurtengo edizioan.

BESTEAK ETA OMENDUA

Jatorrizko bertsioak filmak azpigituluekin izango dira eta arratsaldeko zortzietan egongo da horietaz goatzeko parada. Filme laburren lehiaketara aurkeztuko diren lanak maiatzaren 12an, ostirala, botako dira, eta publikoak berak, eta ez epaimahaiak, saritua izango dena hautatuko du.

Bestaldetik, aurreko emanaldian Jose Luis Lopez Vazquez aktorea omendu zen moduan, aurten Fernando Guillen izango da omendutako aktorea. Atal honen barruan Guillenek parte hartu lau film eskainiko dira: "La Herida Luminosa", Jose Luis Garcirena; "Mujeres al Borde de un Ataque de Nervios", Pedro Almodovar-ena; Gonzalo Suarez-en "Don Juan en los Infernos"; eta, azkenik Gasteizen estreinatu ez den Antonio Mercero-ren "La Habitación Blanca".

HASIERA GALA

Film sorta interesgarria, beraz. Baina proiektzioekin hasi baino lehen, Gasteizko Zinemaldiak behar bezalako hasiera

Gasteizko II. Zinemaldiak mundu mailako estreinaldi batez esango du agur: Eduardo Mignogna argentinarraren "Adela"

Aurtengoa emanaldi landuagoa eta berezituagoa izatea nahi dute

izan dezan, maiatzaren 10ean inaugurazio gala izango da Principal Antzokian. Juan y Medio-k aurkeztuta, Monica Molinak, Golden Apple Quartet-ek, Sobradun-ek eta Farinelli-k eurenak egingo dituzte ordu eta erdiko ikuskizunetan. Jaialdian zehar Fernando Guilleni omenaldia, arestian aipatu lege, eta "sorpresaren bat" ere egongo dela agindu dute antolatzaileek. Ondoren, gaueko hamar eta erdietan Errealizatzaile Berriak ataleko lehehengo filma botako da; Luis Lopez Ojeda zuzendari kanariarraren "El poema de Julie".

Aipatu lehiaketa eta sariez gainera, Gasteiz Irratiak Bogart Sariak emango ditu aurtun ere. Proiektzioekin batera hitzal-diak, liburuen aurkezpenak eta beste hainbat jarduera eramango dira aurrera.

Maiatzaren 14an Zinemaldiak amaiera izango du eta bukaerak ere hasierako galaren maila bera izan dezan, sarien banaketa egin ostean, Gasteizko II. Zinemaldiak mundu mailako estreinaldi batez esango du agur: Eduardo Mignogna argentinarraren "Adela" filma, alegia.

Eta Zinemaldiak irauten duen artean Gasteiz glamou- rrez jantziko zaigu, ikusentzunezkoen hiriburu ukazina bihurtuz, egun gutxi batzuetarako bada ere.



Antolatzaileek dena txukun utzi nahi dute maiatzaren 10erako.

"Askotan entzuten da zinea kultura dela eta abar, baina zinea negozio bat da"

- Haurrentzako filmak euskaraz izango dira, zer dela eta hauek soilik?

Zaila da euskarazko filmak topatzea eta daudenak bikoiztutakoak dira. Izan ere, ezin da ukatu lan hauek merkatu txikia izango luketela. Askotan entzuten da zinea kultura dela eta abar, baina zinea negozio bat da, hori guztiaren gainetik. Oso gogorra da, baina ulerterraza era berean: jendeak euskarazko filmak ikusiko ez baditu, ekoizleek ez dituzte hauek ekoiztuko. Beste gauza bat da Eusko Jaurlaritzatik eta beste erakunde batzuetatik bikoizketa lan hauek burutzea eta bultzatzea, hori primerakoa iruditzen zait; baina, momentu honetan euskaraz eginiko pelikularik egitea oso zaila dela deritzot.

- Nahiz eta berez euskaraz eginiko filmen eskasia nabaria den, osasun ona al dauka euskal zineak?

Bai, euskal zineak primerako osasuna dauka. Baina ez dakit "euskal zinea" esaterakoan zine mota berezitu bati buruz hitz egin daitekeen, niretzat zineak ez du nazionalitatetik. Beharbada zine estatubatuarraz eta europarrak hitz egin genezake. Lehenengoa industria hutsa



Joseba Fiestras sarien kartelarekin

da eta europarraren barruan hemen egiten ari diren lanak bilduko lirateke. Hala eta guztiz ere, pertsona bati buruz hitz egiten badugu, beldurrik gabe esan dezakegu euskaldunek gogor jotzen dihardutela Espainia mailako zinean. Adibidez Araban Juanma Bajo Ulloa edo Karra Elejaldez gainera, bada ondo mugitzen dabilen pertsona talde bat ere. Hor dago, esate baterako, Kepa Sojo, estilo desberdinaz baina bere lekutxo egiten ari dena. Eta bestela

ere, hor dugu Bingen Mendizabal musikaria. Eta ezin dira ahaztu kamaren atzean dauden beste pertsonak...

Osasunagatik ezin kexa, baina oraindik gutxiago etorkizunagatik.

- Ezin da, beraz, ezaugarri zehatz batzuk dituen zine mota bati buruz hitz egin, ezta?

Ez dut uste euskal zinearen esanahia ezaugarri zehatz batzuen bidez labur daitekeenik. Adibide bezala: Alex de la Igleziaren "El Día de la Bestia", "La Madre Muerta", Bajo Ulloarena, Montxo Armendarizen "Tasio" edo Imanol Uriberen "Mikelen Heriotza"; laurak zuzendari euskaldunek eginiko filmak izan arren guztiz desberdinak dira elkarren artean.

- Zinezaleak al gara gasteiztarrok?

Baietz uste dut. Gero eta ohikoagoa da zine aretora joan eta sarrerarik gabe gelditzea, eta ez film komertzialen kasuan soilik. Ez dakit arazoa zine aretoen faltan dagoen. Beste aretoen bat ez letorke gaizki, baina hortik etorriko zaigun areto zaparrada... ez dakit.

arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Ka La Mu
TABERNA
Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5
Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz

DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako...
behar duzun guztia
PAPERTEGI TEKNIKOA



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

IKASTAROAK ATZERRIAN *Uda honetan*

IRLANDA

-

INGALATERRA

-

EE.BB.

ingelesa

frantseza

alemana

FRANTZIA

-

ALEMANIA

-

KANADA

CIMek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

- Ekintza turistiko eta ludikoekin
- Eta **CIMek** beti eskaintzen dizun bermearekin

haur, gazte eta helduentzako



Florida, 8 A
Tel.: 945 15 01 55
Vitoria - Gasteiz

Avda. Alava, 4
Tel.: 943 71 20 55
Arrasate - Mondragón

Olakua, 14
Tel.: 943 71 60 00
Oñati

Zubieta, 26
Tel.: 943 43 31 02
Donostia - San Sebastián



MIKEL TELLERIA

Durangoko
Azokaren aurtengo
edizioan Telleriak
"Deklarazioa" izen-
pean bere lehen
diskoa dena aur-
keztu zuen. Ordutik
Mikelek berak
aipatzen duen
bezala "harrituta"

dago bere lanak
jaso harrera nahiz
kritika onarekin.
"Iristen da momen-
tu bat non aurrera
egin edo betiko
uztea erabaki
behar duzun"; hor-
taz, musikarekiko
zaletasunak bultza-
tua bere burua eza-
gutzero eman du.



"Diskoa
kaleratu
beharra
dauka kan-
tari batek
bere burua
ezagutzera
emateko"

Gero geroak

"Hasieran, hobby moduan, neuzkan barruko kezkak paperean jarri nituen; gero eta urteen poderioz kanta sorta batekin topo egiten duzu, eta aurrera egiten duzu inongo xederik gabe... Auskalo zer ematen duen nire istorio pertsonalak, gero geroak, ezta?". Bi urtez izan dira taldeko kideak tabernaz taberna zuzeneko emanaldiak eskaintzen eta kantak lantzen, eta behin gauzak argi gelditu zirela grabaketari ekin zioten. Gauzak horrela, rock eta rythm & blues doinuak biltzen dituen disko lasai hau lau egunetan Katarain estudioetan grabatu zen Gaztelupeko Hotsak disketxearen eskutik.

Hariari helduz, Mikelen aburuz "kan-

tari batek bere burua ezagutzera emateko diskoa behar du; ezagunagoa zaren heinean jendeak beste helburu batekin deitzen baitzaiteu". "Lehengo formatuari uko egin gabe", baina bai profesionaltasun kutsu handiagoarekin oraingoan Telleriak eta bere taldekideek kultur etxe eta gizarte etxetan eskari berriari erantzuteko lanean dihardute.



GASTEIZKO
HERRIKO
TABERNAK

ALDE ZAHARRA



FITXA TEKNIKOA

• Mikel Telleria jaiotzez Idizabalekoa bada ere 15 urte dira Gasteizen bizi dela, horregatik bere burua non kokatzen duen galdetzean bietan erantzuten du zalantzarik gabe.

• Mikelek kazetaritzako ikasketak egin arren eta ETBn lan egin ondoren, "kazetaritza mundua dagoen moduan egonda" oposizio batzuetara aurkeztu, eta orain Udalerako lanean dihardu.

• Hala eta guztiz ere, Mikel Telleria izena non kokatu bagabiltza musika arloan egin behar dugu, kantaria izatearena, aspaldi buruan bueltaka zeukan ideia, alegia, gauzatu baitu "Deklarazioa" deritzon bere lehen diskoarekin.

GALDERETAN

- Euskal Herriko zeintzuk musika talde gus-tatzen zaizkizu? *Ruper Ordorika eta Lin Ton Taun, besteak beste.*

- Eta Euskal Herritik kanpo?

Batetik, talde bezala REM gustatzen zait; bes-tetik, Van Morrison eta Bob Dylan ditut gustuko bakarlari moduan.

- Maiteminduta dagoen pertsona bati zure diskoa entzutea gomendatuko al zenioke?

Ez, disko hau ez da maiteminduta dagoen per-sona bati eskaintzeko, baizik eta pertsona den edonori. Izan ere, pertsona horren baitan mai-temintzea eta beste gora-behera batzuk ere izango dira. Amodiozko kanta bi besterik ez daude nire diskoan, eta bertan beste gai batzuk ere jorratzen diren heinean diskoa hori baino osoagoa dela pentsatzen dut.

- Idiazabal edo Gasteiz? *Biak, bai noski, baita Euskal Herriko beste hainbat leku ere.*

- Adibidez? *Araia eta Iruñea, bertako jendea ezagutzen dut eta.*

- Oroitzapen musikalik? *Esperientzia asko eta oso aberatsak. Zuzenenko emanaldietan, hau da, tabernetan jo izanagatik oso jende interesgarria ezagutu dut, eta hori ibilbide honetan hasi baizik ez dudala egin.*

- Poesia ala prosa? *Biak.*

- Musika klasikoa ala modernoa? *Modernoa nahiago dut.*

- Egoera bat imajinatu. Zein musika motarekin erlazionatuko zenuke?

Bizitza bera egoera bezala, eta musika mota niri gustatzen zaidana, rythm & bluesa...

- Kantari ona zuretzat? *Zerbait esaten duen kantaria.*

- Zein da zure kanten hitzen etorria? *Hori oso gauza kuriozoso da, nik neuk ere ez baitakit, gertatzen da eta kitto. Klean zoaz eta konturatu gabe melodia bat duzu buruan, orduan konturatzen zara kanta bat izan daitekeela, harekin bueltaka hasten zara eta azkenean kanta bihurtzen da, baina hitzen etorria bera ez dakit nondik datorren.*

Mikel Telleria "harrituta" dago bere lanak jaso harrera nahiz kritika onarekin



DEKLARAZIOA: TELLERIA ESTILOAREN ADIERAZGARRIA

Mikel Telleria, Koldo Uriarte, Juanjo Unzilla, Iosu Izagirre, Iker Uriarte eta Asier Yarzak osatzen duten taldeak "Deklarazioa" izen-buruaren baitan estilo inti-mistaz gozatzen diren hamabi kanta batu ditu. Musika eta letren egilea den Telleriak betidanik erakarri izan duen estiloari, rythm & bluesa eta rocka, baita folk-rockari ere, jarraitu dio diskoan. Hortaz, bere doinue-tan Van Morrison, Rupert Ordorika, Bob Dylan eta Lou Reed bezalako abesla-rien arrastoak antzeman dai-tezke.

Bere letretan, berriz, giza-kia du ardatz nagusi, bere gora-beherak, desorekak... Gai klasikoak, beraz, beti-danik literaturan eta musi-kan jorratu izan diren horiek, alegia, nahiz eta oraingoan Mikel Telleriak duen ikutu bereziaz jantzita datozen. Kanten artean amodiozko bi, hauetatik dis-koari izena eman dion "Deklarazioa" hain zuzen ere. Estilo honen atzean zer ezkutatzen den adierazga-rrizat jo zuen Telleriak izen-buru hau: "Demagun adua-na batean gaudela..., kanta sorta hau deklaratu nuke, zein musika mota egiten dudan agiri pertsonala baita".



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutzi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoileko artzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

**"Gehien
gustatzen
zaidanaren
inguruan
kantatzen
dut,
maitasuna
alegia"**

**JOSU
BRAVO**

**Hemeretzi urteko
gazte honek bere
ahotsa eta kitarraz
lagunduta bere ame-
tsa lortu du, Erantzun
baten zai izenpean
bere lehen diskoa
kaleratu baitu. Irrati,
egunkarietan eta
telebistan Josu
Bravoren izena pro-
mozionatuz geroztik
uda partean Euskal
Herriko eszenatokie-
tan entzuteko aukera
izango dugu.
Momentuz eta ordura
arte, Gasteizen aur-
kezpena egitearen
zain dago gaztea.**

Maitasun hitzak, ama natura, euskararen egoera eta ametsen mundua biltzen ditu Josu Bravok gaztelaniaz nahiz euskaraz konposaturiko hamar kantatan. Eta horrela hain zuzen sentitzen da gaztea; maiteminduta, konprometitua eta zorionekoa. "Ametsen munduan gogor saiatu behar da zerbait lortzeko. Nik nire ametsa lortu dut". Hala eta guztiz ere Bravo, ospe pertsonal nahiz profesionalaren biderei ekinaz, ideia berrien bila dabil: "Orain lasai nahiz artega sentitzen naiz, aurrera egiten jarraitu nahi dut-eta. Diskoa kaleratzea lortu dudan arren, beste bat politagoa eta landuagoa egin nahi dut, izan ere, hori da kantari guztien ametsa".

Lau urte daramatza Josuk zuzeneko emanaldiak ematen Arabatik, herriz herri. Gauzak horrela, bere lehen diskoa zuzenean grabatzea erabaki du: "Lehen esperientza zenez berdin zitzaidan estudio batean edo eszenatokian egitea, gainera zerbait gaizki irtetzen bada gero beti dago konpontzeko aukera".

Euskaraz eta gaztelaniaz

Kritika aldekoa izan da gaztearen lehen

lanarekin, jendeak gustu onez hartu baititu Josu Bravoren maitasun hitzak eta pop-rock erritmoa, "bakoitzak gehien gustatzen zaionaren inguruan kantatzen du eta horregatik nik amodioaz egiten dut". Bere kantetan kantari zehatz baten isla nabaririk ote den galdetzean Josuk idolorik ez daukala erantzuten du, baina bai, berriz, gustuko musikariak: Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Mikel Markez eta Mikel Urdangarin, besteak beste. "Bestetik, Euskal Herriko hainbat kantariaren ibilbide musikala gaurkotasun handiz jarraitzen dut".

Gasteiztar hau hasi besterik ez da egin, hortaz, bere ibilbide musikala nondik-nora zuzentzeko euskaraz nahiz gaztelaniazko kantak bildu ditu diskoan: "Bitxia da, baina frogatzeko egin dut, horren arabera jakingo baitut bide bate-tik edo bestetik abiatu behar dudan". Gauzak horrela, lana utzi eta musikan buru-belarri sartzea bilatzen du kantari gazteak. "Lana utzi eta profesionala izan nahi nuke". Musikatik bizitzea posible ikusten du eta gai honekin baikor agertzen da Josu Bravo. "Zerbait berria egiten baduzu eta jendearen gustukoa bada, aurrera egin behar da, saiatu behar da".



"Ametsen munduan gogor saiatu behar da zerbait lortzeko. Nik nire ametsa lortu dut"

"Lana utzi eta profesionala izan nahi nuke"

FITXA TEKNIKOA

- Gasteizen 1981eko maiatzaren 5ean jaio zen Josu Bravo. Ikastolan ikasketak bukatu ondoren, musika, solfeo, kitarra eta ahotsa landuz gazteak "Erantzun baten zai" izenburupeko bere lehen diskoa kaleratu du.
- Autodidakta den kantari honen zaletasunak: arrantzara lagunekin joatea eta musika munduan jardutea. Gauzak horrela, abeslari moduan aurrera egiteko gogoarekin gogor hasi da lanean Josu Bravo.

GALDERETAN

-Betiko ametsik?

Asko, asko..., adibidez, lasaitasunez bizi, problemarik gabe, baina hori ezinezkoa da.

-Egia bihurtu den ametsen bat?

Diskoaren grabaketa eta kaleraketa.

-Kanta bat?

Gogoan zaitut.

-Hori zure kanta bat da, norbaiti bereziki dedikatua? Bai, Jaioneri, nire neska da.

-Kantari bat? Mikel Markez.

-Idazleren bat? Poesia idazten duen bat, Silvio Rodriguez.

-Etorkizunaren kolorea? Berdea, itxaropenaren kolorea baita.

-Oroitzapen bat? Kontzertuetan egoten naizenean eta bertan jende berria ikusten dudanean.

-Euskal Herriko musika talderik? Betagarri. -Eta kanpoko talderik? Extremoduro.

-Lanbide bat? Musikaria.



Lehiaketa



Entzun! Musika aldizkaria hilero zure etxean jaso nahi duzula?

Ba... bidali lehenbailehen galdera honen erantzuna -izena (ALDIZKARIKO ETIKETAN agertzen dena) eta telefono zenbakiarekin batera- Geu aldizkarira (helbidea, 4. orrialdean), Entzun! aldizkari urte osoko harpidetza zozketatzen baitugu berau asmatzen duzuen artean.

**Maiatzeko galdera:
Zein taldek jo zuen
apirilaren 8an
Gallery aretoan?**

Apirileko irabazlea:

Arantza Ezpeleta • Zorionak!

Apirileko erantzuna: Josu Bravo

***EMAITZA ETA SARITUA
DATORREN ALEAN (MAIATZEAN)**

***LEHIAKETAN ESKU HARTZEKO
HARPIDEDUN IZATEA EZINBESTEKOA DA
(ETIKETAREN IZENA ZEHATZU).**

MERKURIO-XADIMIOAN
%0a

**CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK**

**CEGASA
INTERNATIONAL
ALKALINA**

**CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE**

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

**Iker Foronda eta Jonatan Hernandez gasteiztarak apirilaren
1ean Palentzian jokatu zen Zesta Munduko Txapelketaren
sub-22 mailako garaileak ditugu.**

Iker Foronda zestalaria

**"Zesta puntak
bizi duen egoera
kaxkarra den
arren, jokatzek
ematen dizun
poztasunari
esker aurrera
jarraitzen
dugu"**



• Nola hasi zinen kirol honetan?

Hamaika urterekin hasi nintzen zestan, garai horretan eskupilotan jokatzen nuen eta Konpa ezagutu nuen, berak esan zidan zesta ikustera joateko, joan nintzen eta piloa gustatu zitzaidan, ordutik berak eskolan sartu ninduen.

• Kontadazu zure ibilbidea zesta puntan?

Dena oso azkar pasa da, gogoratzen dut nola lehen arratsaldero joaten ginen frontoira eta bertan eguna ematen genuen jokatzen, giroa apartekoa zen eta primeran pasatzen genuen. Baina nagusitzen zoazen heinean entrenatzeko orduak murrizten dira etxera joan eta lan egin behar duzulako.

• Nola ezagutu zenuen egun zesta puntan zure bikotea dena?

Frontoian txiki-txikitatik hasi ginen, bera ni baino bi urte gazteagoa da, orduan, gero eta partidu gehiago jokatuz eta batez ere kanpora joaterakoan elkar ezagutzeko aukera izan dugu Jonatanek eta biok.

• Zein izan da orain arte irabazi duzun saririk inportanteena?

Garrantzitsuena orain Palentzian jokatutako Munduko Txapelketan irabazitakoa da.

• Iker Foronda Rojo 1979ko martxoaren 20an jaio zen eta zestalari bikana izateaz

gain "besteekin modu onean kezkatzen den pertsona arrunta" da.

Gazte honek aurtan hasi ditu SHEE ikasketak, eta momentuz hauek bukatzea du helburu nagusia. Zestaz

gain Forondak musika entzutea eta trikia jotzea ditu zaletasunen artean gogokoenak.

Bestetik, Europa mailakoan ere irabazi genuen, nahiz eta ni ordezkari moduan egon nintzen. 1998. urtean Espainako azpitxapeladunak izan ginen eta 1999.ean txapeladunak. Azkenik, Euskadiko txapelketetan hiruzpalau txapela lortu ditut.

• **Nola sentitzen zara orain munduko txapeladuna zarela?**
Orain denbora pasa dela ia-ia berdin, hasieran, berriz, egundoko poztasuna sentitu nuen, gero betiko bizitzara bueltatzen zara eta orduan jada ez da horrenbestera.

• **Zelako giroa zegoen finalean?**
Frantziaren kontra jokatu genuenean izugarri giro ona; izan ere, aurkariaren arteko nahiz bertako jendearekin harremana oso ona izan zen, oso ondo portatu baitziren. Bertako jende asko gerturatu zen kirola ezagutzera, eta unibertsitatean zeuden euskaldun asko ere joan ziren partidua ikustera.

• **Beraz, zesta puntalaririk onenak Euskal Herrian daude?**
Bai, izan ere Frantziaren kontra jokatu bagenuen ere hauek Iparraldekoak ziren, euskaldunak alegia. Azken finean maila normalean hortik ibiltzen da, beraiek eta gure artean. Aurreko bi txapelketetan Frantziak irabazi zuen eta aurten guk.

• **Ze moduzko egutegia du zu bezalako txapeladun batek?**
Txapelketa baino lehen nahiko harrapatua ibili nintzen, fisikoa gure kabuz egin behar bagenuen, eta gero entrenamendua piloa genekien, eta partidua ere nahikotxoak ziren... Orduan nahiko beteta neukan.

• **Nola defendatuko duzu orain titulua?**
Ez dakit, gauza da nire atzelaria EEBBetara doala jokatzera, orduan, defendatzea zaila izango da. Horretaz gain, hurrengo sub-22 txapelketa lau urte barru izango da eta ordurako ni adinean pasatuko naiz. Hala ere, absolutuan sartzen saiatuko naiz; zeinekin, eta joaten naizen ere, auskalo.

• **Maila profesionalean jarduteko asmorik?**
Euskal Herritik kanpo behintzat ez, ikasketak hasi berri ditut eta ez daukat momentuz presarik profesionaleara pasatzeko. Euskal Herrian jokatzeko balitz, baietz esango nuke, zesta eta ikasketak osagarriak lirateke-eta.



"EEBBetan zenbaki bat besterik ez zara"

• **Kirol munduan zein da zesta puntak bizi duen egoera?**
Kaxkarra, oso kaxkarra. Pilota munduaren barnean agian gutxi entzuten den kirola da, eta horrez gain, futbola eta saskibaloiarekin konparatuz askoz ere gutxiago; egia esateko pixka bat hilda dago. Askotan ikusten duzu jendeak ez duela erantzuten eta hori triste da, baina gero txapelketa bat jokatzeak ematen dizkizun poztasun guztiak ikusita aurrera egingeko gogoia badago.

• **Zein-nolako etorkizuna dakusazu?**
Planteatzen ez dudan gauza bat da... Ikasketekin eta zestarekin jarraitu nahi dut, ea egunen batean profesionalean jokatzen dudana; EEBBetara joatea ere gustatuko litzaidake.

• **EEBBetan al dago zestariaren geroa?**
EEBBetara joan diren zesta puntalari gehienek diote aukera ezin hobea dela hara joatea jendea eta beste kultura bat ezagutzeko. Dena den zestari dagokionez, oso triste da zeren han zenbaki bat besterik ez zara, kiniela modura jokatzen dute, hau da, tantoa egin ahala beste bikote bat sartzen da jokatzera. Jendea dirua irabaztera doa eta kirolariak ez zaizkie axola.



ZIRT EDO ZART

• **Kirol bat?**

Zesta.

• **Kirolari baten izena?**

Konpa.

• **Gasteizko leku bat?**

Andre Maria Zuriaren plaza.

• **Momentu bat?**

Lagunekin gustura nagoenean.

• **Oroitzapen bat?**

Lehenengo neska.

• **Etorkizunean zer helburu?**

Ikasketak bukatzea.

• **Euskal selekzioa?**

Bai.

• **Frontoi bat?**

Mendizorrotza.

• **Zesta puntalaririk onena?**

Katxin Uriarte.

• **Ametsik?**

Neska topatzea edo.

BUZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatxoak

Aitzogile kalea (Kurxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

Zeuk aukeratu!

KANGEUROAK

Zerrenda berria osatzen ari gara. Bertan agertzea nahi izatekotan deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira eta zehaztu zure ordutegia.

GAUEZ

Leire 649 57 11 29
Miren 945 13 02 57

ASTEBURUAK

Leire 649 57 11 29
Miren 945 13 02 57
Maidar 945 26 15 75

*Emakume-neska euskalduna behar da
2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko.
945 27 44 40 (Eduarne)

LEHIAKETA K

FANTASI IPUIN LABURREN VIII UNIBERTSITATE
LEHIAKETA/FELIX UGARTE VIII ITZULPEN
LEHIAKETA

EPEA: 00-5-22 INFORMAZIOA: EUSKAL HERRIKO
UNIBERTSITATEA-ARABAKO KANPUSEKO ERREK-
TOREORDETZA (Izardui Komandantea, 2-1614
Postakutxa-01006-GASTEIZ)

IGARTZA SARIA. III. LITERATUR SORKUNTZAKO
BEKA IDAZLE BERRIENTZAT
INFORMAZIOA: BEASAINGO UDALA
EPEA: 00-6-30

XII RIKARDO ARREGI KAZETARITZA
SARIA Epea: 00-5-25.

Informazioa: Andoingo Udala
"PARTE HARTZEKO IDEIAK".
Partaidetasunerako Estrategia eta
Tekniken Lehiaketa. Antolatzailea eta
informazioa: ERABERRI kolektiboa (945 14 92 02).
Epea: 00-5-31

"SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA"
III. UNIBERTSITATE MAILAKO
IKERKETA LEHIAKETA.

Epea: 00-7-31
Informazioa: Sancho El Sabio Fundazioa.
945 14 78 00



GAZTEENTZAKO ABENTURA KANPALEKUA UDALEKUA NATURAN

Aurreinskripzioa: Maiatzak 15-19
Antolatzailea: Gasteizko Udala. Gazteria
Zerbitzua. Informazioa: 010

Geu aldizkariak gomendatzen du

-ZALDUONDOKO KULTUR ELKARTEAREN ESKUTIK...

"MENDIKEA 41" ERA- KUSKETA KOLEKTIBOA

TOKIA: Lazarraga
Jauregia. ZALDUONDO
(Araba). 945 30 43 93

Araba eta Nafarroako artistak: Agurtzane Villate (Gasteiz), Iñaki Otxoa (Iruñea),
Enrique Benito eta Tomas Astiz (Nafarroa). Maiatzaren 19ra arte.



MUSIKA

Arriaga Liburudendaren eskutik
RUPER ORDORIKAREN AZKENA:
"RUPER GAUR ORDORIKA"
Atzo eta gaur bat eginik
Kafe Antzokitik zuzenenean
KATARAIN ESTUDIOA



LITERATURA.

Ttarttalo Argitaletxearen eskutik
"LA HERBOLERA"
TOTI MARTINEZ DE LEZEA
TTARTTALO LITERATURA
2.950 pta.

PARRAL TABERNA. MAIATZEKO AGENDA

2an. CORRILLO FLAMENCO
9an. TRASCABARET (Gasteiz)
16an. ANDER LIPPUS: Ardoaz (Antzerkia)
23an. SYMBIUM PANDORA
30ean. HAPPY (Perkusioa)

DANTZA

MAIATZA, DANTZAREN HILA. Adi, ba, Principal Antzokiak eskainiko duenari!

DEIALDIAK

ELKARTASUN EGUNA: Maiatzak 6, Bilboko Erakustazokan, goizeko 11etatik aurrera.

geurekin mendira

SALBADA MENDIA:

ARO (1127m.)-ESKUTXI (1180m.)-UNGINO (1105m.)

NOIZ: Maiatzaren 21ean

IRTEERA: 9:30etan Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean. Autoz ITZULERA:

18:00ak aldera (gutxi gora-behera)

IBILBIDEA:

EDOZEIN ARGIBIDETARAKO DEITU

TELEFONO HAUETARA:

945132758 (Txipi)/945282316 (Maite)

*** Eta... Maiatzaren 7an, Geu elkarteak, Bagare-k eta Euskaraz Bizi-k antolaturik:**

ARALAR: LIZARRUSTITIK AMEZKETARA.

HIRUMUGARRIETA (1431m.)

IRTEERA: goizeko 8:30etan Marianistas ikastetxearen aurrean

ITZULERA: 19:00ak aldera. Autobusez

-Bagaren eman behar da izena

(Epea: Maiatzak 6, 21:00etan)

***Plazak mugatuak dira. Garaiz ibili!!!**

GURIDI

SAMANIEGO

Gasteizko II Zinemaldia GURIDI Zinemetan

*Umeentzat:

"JACK, AMAZONIAKO ERREGEA" (Danimarkakoa)

-Maiatzak 12, 10:30etan **Euskaraz

Jack, Rita azeri emea eta Conrad aberats okitua, protagonistak. "La Bella y el Animal" pelikula, Conraden helburua... Junglatik hirira, zine estudioetara... Ospea ala askatasuna...

*Helduentzat:

"PEQUEÑO LADRON" (Frantziakoa)

-"Jatorrizko bertsioak" atalean, maiatzak 12, 20:00etan

S-k 20 urte ditu, Orléansen bizi eta okin laguntzailea da. Jabearekin eztabaida gogor bat izan eta gero lana utzi eta Sandrarenera -kutzazain gazte bat- joatea erabakitzen du. Bere lehen lapurreta egin eta Marseillara joaten da bertan delitugile batzuekin elkartzuz. S mundu honetan sartzen eta gora egiten saiatuko da.

ADI LEHIAKETARI!!!

GURIDI ETA SAMANIEGO ZINEMEN ESKUTIK MARTXORAKO ZINEMARAKO 2 SARRERA ZOZKETATZEN DITUGU ERANTZUNA ASMATZEN DUZUEN HARPIDEDUNEN ARTEAN.

Apirileko erantzuna: AMAYA zine aretoa

Irabazlea: MERTXE SAEZ DE GORDOA • ZORIONAK!

Maiatzeko GALDERA:

Noren ingurukoa izango da Juanma Bajo Ulloaren hurrengo pelikula?

*Erantzuna eta saridunak datorren alean BIDALI ERANTZUNA GEU ALDIZKARIRA (4. orrialdea) ...hilaren 20a baino lehen. POSTAZ EDO E-MAIL-EZ, ZUEN IZENA (ETIKETAKOA) ETA TFNO. ZENBAKIA ZEHAZTUZ.

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú...

Euskal oihalak: mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra

Opariak eta euskal oroigarriak

NON BAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ


Tel./faxes: 945 232229
nonbait@nonbait.com

Z
U
R
E

E
U
S
K
A
L

D
E
N
D
A
K

Txerokiren abenturak



NIRETZAT,
UDABERRIA
NAZKAGA-
RRIA DA!



**HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errolda Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintzia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Schommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 33 16 12 61 16 36 91 16 15 19 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

ZUETAKO BAKOITZAK HARPIDEDUN BAKAR 1 LORTUZ GERO... OZTOPOA GAINDITUTA!



Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ

Izena

Abizenak

Helbidea

P.K.

Herria

Herrialdea

Bankua/Kutxa

Titularra:

Kontu zk. (20 dijitoak)

